

Nicos Poulantzas eta Euskal Udaberria.

Borobildu gabeko elkarriketa

Iñaki Zarandona Elorrieta
EHUko Politika eta Administrazio Saileko doktoregaia

Nicos Poulantzas soziologoaren loraldia eta Euskal Herriaren berpizte kultural eta politikoa aldi berean gertatu ziren 60ko hamarkadaren amaiera aldera. Lehenengoak, Estatuaren teoriko marxista gisa Parisen, eta bigarrenak, nazio-izaeraren eta askapen-borrokaren bultzada gisa, loraldi bat bizi eta euren bilakaeran elkarren berri izan zuten. Kilometroak kilometro, badakigu Poulantzas Euskal Herriaz jakitun izan zela 70eko hamarkada hasi zenerako. Era berean, euskal askapen-borrokak ere ordurako Poulantzasen zenbait teorizazioen eta analisisen berri izan zuen. Gauzak horrela, Poulantzasen eta Euskal Herriaren arteko hartu-emana egon zela diogu artikulua honetan. Alabaina, beharizan ezberdinak direla medio, azalekoa eta borobildu gabekoa. Batez ere nazio-auziaren inguruko hausnarketen ezagupenari dagokionez. Izan ere, euskal askapen-borrokak ez zien arreta berezirik jarri nazio modernoaren gaineko teorizazio poulantziarrei, eta kontrako norabidean, pentsalari greziarrak ez zituen ezagutu nazio-askapenaz euskal matxinadak egindako garapen teorikoak. Gauzak horrela, biek ala biek sakonki elkarren berri izan balute, bilakaera teoriko zaporetsuagoa izango zuketelakoan gaude.

GAKO-HITZAK: Nicos Poulantzas · Nazio-auzia · Marxismoa · Euskal Herria.

Nicos Poulantzas and the Basque Spring. Unrounded conversation

The flourishing of Nicos Poulantzas and the political revival of Euskal Herria took place in the late 1960s. The first one, as a Marxist theorist of the State, and the second one, as a nation liberation, lived a flourishing period and became acquainted with each other. We know that Poulantzas was aware of the Basque Country by the beginning of the 1970s. And we can also see that the Basque Revolt had already learned analyses of Poulantzas. Thus we say that there was a mutual agreement between Poulantzas and the Basque Country. But it was unrounded. Especially with regard to the knowledge of the reflections on the national question. The Basque struggle didn't pay particular attention to the Poulantzian theorizations of the nation, and Poulantzas didn't recognize the theoretical developments of the Basques. Thus, if they had known each other thoroughly, they would have had a more tasty theoretical evolution.

KEY WORDS: Nicos Poulantzas · National question · Marxism · Euskal Herria.

1. Sarrera

Emir Sader pentsalari ezkertiar brasildarrak adierazi zuen «Nicos Poulantzasen eta Latinoamerikaren arteko elkarriketa etenda geratu zela»¹ (2020). Soziologo greziarrak ez ziela Atlantikoaz bestaldean zeuden herrialde latinoei behar adina arreta jarri, eta Saderrek berarekin prozesu herritar eta iraultzaile latinoamerikarren inguruko elkarriketa izateko zita bat adostuta zuelarik, 1979an, Poulantzasek bere buruaz beste egin zuen. Ez zuten gaiaz sakonean aritzeko aukerarik izan. Modu horretan dio Saderrek Poulantzasen eta Latinoamerikaren arteko hartu-eman etenda geratu zela. Literalki batetik, elkarriketa posible izan ez zelako, eta metaforikoki bestetik, Poulantzasek bere arreta batez ere Europako baldintza historiko eta soziopolitikoetan jarria zuelako.

Saderren metafora gurera ekarriz, Poulantzasen eta Euskal Herriaren artean, eta zuzenago, euskal askapen nazionalerako borrokaren artean, zeharka bada ere, elkarriketa baten zantzuak gertatu zirela esan genezake². Elkarriketa metaforikoaz ari gara batez ere, elkarriketa batzuk ere eman arren 70eko hamarkadan bere klaseetara hurbiltzen ziren euskaldunekin (Iztueta, 2025). Baina hortik haratago, irudizko adiera batean elkarriketa egon zela azpimarratu nahi dugu, Poulantzasek Euskal Herriaren borroka nazionalaren berri izan zuelako batetik —azaletik bada ere—, eta 1968tik aurrera gertaturiko —eta Itziar Aizpuruak horrela izendaturiko— Euskal Udaberri (Olariaga, 2020, 9. or.) politiko eta kulturean, ezker abertzalearen eremu zabalean Poulantzasen idazkiak ezagunak egin eta erabiliak izan zirelako bestetik. Alegia, biek izan zutelako elkarren berri; eta sakonean elkar ezagutu ez arren, Euskal Herriak gehiago ezagutu zuela Poulantzas ere esan genezake. Asimetria nabaria izan zen. Edozein kasutan, zein puntutaraino izan zuten elkarren berri? Zehatz-mehatz argitzea zaila dirudi, baina eragina eta hartu-eman borobildu eta sakondu gabe geratu zela esan dezakegu. Bederen elkarren ezagutza handiago baten falta egon zelarik.

Gure bi protagonisten ibilbideak 60ko hamarkadan eta 1968ko maiatzaren bueltan sinkronizatuz gero, ikusiko dugu biek jauzi kualitatibo bat egin zutela maila teorikoan eta politikoan modu paraleloan. Hots, bai euskal askapen-mugimenduan bai eta Poulantzasengan berebiziko garrantzia izan zutela 60ko hamarkadako urteek, eta zelan ez, hamarkada horren amaierako 1968ko udaberriak —eskala eta ezaugarri propioak bereiziz, noski—. Izan ere, alde batetik Euskal Udaberriarekin Euskal Herrian gertatzen ari zen eztanda kultural eta soziopolitikoak askapen-mugimendua heldutasunera eramane zuelako, eta beste aldetik, Parisko 68ko gertakari katramilatsu eta gorabeheratsu horiekin, Poulantzasen garapen teoriko eta publikoan ere zenbait aldaketa gertatu zirelako; batik bat Estatuari buruzko teoriarari famatu bilakatu zelako, eta denborarekin, tesi althusseriarretatik tesi erlatibista eta sofistikatuagoak garatzeraino ikerketa-eremuak zabaltu zituelako.

1. Jatorrizko testua espainolez da. Artikuluan zehar aipu guztiak ere nik euskaratuak izan dira jatorriz euskaraz ez baziren.

2. Artikulu honetarako oinarritzakoak izan dira Jokin Apalategirekin izandako elkarriketak, eta beraz, eskerrak eman nahiko nizkioke.

Zehatzago begiratz gero, Poulantzas gaztea 1960an Parisera heldu zen, eta Sorbonan, Zuzenbidearen Filosofia irakasteko aukera izan zuen 1964ra arte. Orduko saltsa ezkertiar eta paristarrean sartzen hasita *Les Temps Modernes* aldizkariaren bueltan aritutako Simone de Beauvoir eta Jean Paul Sartreren tamainako intelektualak ezagutu zituen. Eremu sartrearretan murgildurik, apurka-apurka, Estatuaren teoriarekiko kezka garatzen joan zen. Althusser ezagutu zuen ondoren, 60ko hamarkadaren erdialdean, eta haren eragin itzela izan zuen ere haize sartrearrak alboan utzirik. 1967an Grezian Koronelen diktaduraren etorrerarekin Poulantzas exiliatu bilakatu zen Parisen. 1968an, berriz, Greziako Alderdi Komunistan izandako zatiketarekin, alde eta ildo eurokomunistarekin lerratu zen. Militante antiestalinista egiten hasia zen dagoeneko. Era berean, urte hartan argitaratu zuen *Pouvoir politique et classes sociales. De l'Etat capitaliste* (1968) eta marxismoak falta omen zuen Estatuaren teoria garatu nahi izan zuen. Vincennes-eko unibertsitate esperimentalean soziologian plaza lortu eta ondoren, ospe internazionala lortzen hasi zen eta ehunka ikasle eta militanteren erreferentzia izatea lortu ere. Ordurako althusserianismotik aldentzeko bidean pausoak hasita zituen eta Estatuaren inguruko tesi erlazionalen bideari ekin zion. Poulantzasek garai hartan, Europako herrialdeetan arreta jarrita, Estatu kapitalistaz, nazio-auziaz, inperialismoaren momentuko faseaz, burgesia txiki berriaz, klase arteko aliantzez eta sozialismo antiestalinista edo demokratikoaz teorizatzen bidea zabaldu zuen. Haren ekarpena emankorra izan zen horrenbestez, eta haren obra eta idazkiek Frantziako Estatuko mugak gainditu zituzten. Baita Euskal Herrira eta Hego Euskal Herrira heldu ere.

Alta, garai horretako Euskal Herrian, testuinguru frankista betean, lehenengo ikastolak sortu ziren klandestinitatean 1959tik aurrera. Euskara batuaren osaketa, 60ko hamarkadan, Arantzazuko haizeetatik etorri zen. Euskal literaturak gorakada izugarria izan zuen, Durangoko Azokaren lehen edizioa eta Gabriel Arestiren *Harri eta Herri* liburua horren adierazle. Oteiza, Basterretxea, Ibarrola eta euskal eskultoreak bete-betean ari ziren, eta euskal kantagintzak, Ez Dok Amairu edota Mikel Laboa, Xabier Lete, Lourdes Iriondo eta Maite Idirinen ekarpenekin, notak eta letrak jarri zizkion euskal loratzeko horri. Era berean, langile-mugimendua antolatzen zihoan Sindikatu Bertikalaren baitatik eta oposizio antifrankistaren bultzadatik. Bitartean, politikoki ere beste loratzeko bat ematen ari zen: euskal protesta-zikloa eta Euskal Nazio Askapen Mugimendua (Zubiaga, 2014). Izan ere, 1962an ETAK bere I. Asanblada egin zuen eta Euskal Askapen Nazionalerako Mugimendu iraultzaile gisa definitu zuen bere burua askapen nazionala eta soziala aldi berean uztartuz. Aljeria, Kuba eta Vietnamen eraginak argiak ziren. 1963an, II. Asanbladan, gerra iraultzailearen printzipio maoistak bereganatu zituen eta Frantz Fanon eta Federico Krutwig irakurrienak izan ziren. IV. Asanbladan, berriz, antolakundean joera ezkertiarago bat areagotu eta marxismoaren eragina nabarmena izan zen. Hortik erakundearen zatiketa, troskistak batetik, eta abertzaletasun iraultzailearen eta sozialismo humanistaren aldekoak bestetik banatuz. Alabaina, ETaren V. Asanbladaren 1966tik aurrerako eztabaidak argipen ideologiko eta teorikoak ekarri zituen. ETaren bigarren birfundazioa gertatu zen (Casanova, 2014: 84): askapen nazionalerako mugimendu *sozialista* gisa definitu zuen bere burua eta euskal

iraultzarako subjektuaren *Euskal Herri Langilearen* formulazioa egin. 1968an Txabi Etxebarrieta militante karismatikoa tirokatu zuten Benta Haundin. Euskal matxinada independentzia eta sozialismoaren iparrorratzarekin abiatu zegoen (Olariaga, 2020). Eta Poulantzasek euskal protesta-zikloaren berriren bat izan zuen, 70eko hamarkadaren hasiera aldera bederen.

2. Poulantzas Euskal Herriaz

Esan bezala, 60ko hamarkadaren hasieratik Euskal Herria borborka zegoen maila kultural, sozialean eta politikoan. Baina 1968ko testuinguruan, ETAk Meliton Manzanask hil ondoren, salbuespen-egoera indarrean, eremu judizial militarrek bere gain hartu zituen ordena publikoarekin harremana zuten auziak. Egoera politikoa horrenbestez nabarmen berotu zen Euskal Herrian. Burgosko Kapitaintza Orokorrak, zentzu horretan, Euskal Herriko ordena-kontuak berenagatu zituen eta 1969an atxilotutako ETako zuzendaritza epaitu zuen 1970eko abenduaren 3tik 8ra arte. 16 pertsona izan ziren epaituak ETA erakunde politiko eta militarra bereziki kolpatu nahian. Alabaina, erregimen frankistaren kalkuluak gaizki ateratu eta antolakundeak atzetik zuten babes soziala eta herritarra bistarazi eta agerian geratu ziren. Erakunde armatu bati egindako epaiketa militarra zena herri bati eta haren askapen-borrokari egindako jazarpen faxista gisa ulertu zen Euskal Herrian, eta neurri batean baita nazioartean ere.

Gauzak horrela, Euskal Herriaren luze-zabalean mobilizazioak hasi ziren. Hego Euskal Herrian geldialdi orokorra burutu zuten zenbait antolakunde abertzalek, mugimendu antifrankistak eta langile-mugimenduak deituta. ETA V.ak Eugen Beihl kontsul alemaniarra bahitu zuen Donostian. Eta Euskal Herrian ez ezik, nazioartera ere zabaltzen ziren protestak eta elkartasun-keinuak. Frantziako Estatutik, Suitzatik, Alemaniako Errepublika Federaletik, Ingalaterratik eta hamaika txokotatik manifestazioak eta babes-keinuak heldu ziren. Horrenbestez, Burgosko Prozesuaren aurkako salaketek mundu-mailako oihartzuna izateak Euskal Herria ezagutarazi zuen. Areago, Euskal Herriaren askapen-borroka lau haizetara zabaltzearekin batera, nazioartetik indar politikoen eta intelektual ugariaren posizio-hartzeak etorri ziren. Nabarmenezkoa da Sartreren ekarpena euskal askapen-borrokaren publizitatean. Izan ere, Gisele Halimiren *El proceso de Burgos* (1971) liburuari egindako hitzaurrean idatzitakoek izugarritzko oihartzuna izan zuten. Tamaina horretako intelektual bat ETArekin eta bere borrokaren alde lerratzeak nabarmen hauspotu zuen Euskal Herriaren borroka eta estaturik gabeko nazioen auziaren hurbilpena zenbait sektoreri. Seguru asko Poulantzasi berari ere, Sartre erreferentziazat izan baitzuen 60ko hamarkadan zehar, Althusserren jarraitzaile egin aurretik.

Testuinguru horretan, beraz, Poulantzasek Burgosko Prozesuaren berri izan zuen 1970. urtean. Eta intelektual antifaxista konprometitua izanik, badakigu beste intelektual greziar batzuekin batera urte bereko abenduan prozesatuekiko —eta Montserrateko monasterioan prozesatuen alde itxialdia egiten ari ziren 300 intelektualekiko— elkartasun-manifestu bat idatzi edota sinatu zuela (Le Monde, 1970). Bertan prozesatuen ausardia loratu eta haien kontrako krimena edo basakeria

salatu zuten. Alta, egiari zor, esan beharra dago manifestuak «herri espainiarraren» borroka duela hizpide, baina garaiko elkartasun-keinu askok joera hori erakutsi omen zuten, eta beharbada Euskal Herriarekiko izango zuten lehenengo hurbilpenetariko bat izan zen Prozesuak sortutako giroa.

Hala, ez dakigu zein momentutan izan zuen Nicos Poulantzasek Euskal Herriaren berri. Izan ere, posible da Burgosko Prozesuaren aurretik zertxobait ezagutu izana. 1968ko urte katramilatsu paristarrean hainbat euskaldun egon baitziren. «Bi mila errefuxiatu inguru» zirela gogoratzen du Paulo Iztuetak (2025). Horietako batzuk, bera eta Jokin Apalategi besteak beste, Sorbonako Unibertsitatean ikasten ari zirenak. Konkretuki, Vincennes unibertsitate aurrerakoi eta berria zabaldu zuten lehenengo momentutik, beste euskaldun batzuekin batera noski. Orduan ezagutu zuten, bada, Nicos Poulantzas. Biak, soziologiako ikasketetan matrikulaturik haren klaseetara joaten baitziren, eta gainontzeko ikasleekin batera harekin eztabaidatzeko aukera izan zuten. Orduan Michael Lowy troskista iparramerikarrak eta Poulantzasek, marxismoa eta nazio-auzia mintzagai, saio ugari eskaini zituzten elkarrekin. Paulo Iztuetak dio euskaldunak bildu egiten zirela «Euskal Herriko iraultzarekin loturiko lanak egiteko», Euskal Herriko gizarte klasista azaltzen zutenak besteak beste (2025). Pentsa liteke, hortaz, aukera zuten uneetan Euskal Herriaz hitz egiten zutela. Eta Poulantzasi bidalitako lanetan ere aukera hori probesten zutela Euskal Herriaren egoeraz jakinarazteko.

Gogora ekar dezagun Ipar Euskal Herrian 60ko hamarkadaren amaieran euskal errefuxiatuek jasandako jazarpenak ere bazterrak astindu zituela Bidasoaren iparraldean. Alegia, Espainiako Estatuaren eta Frantziakoaren arteko kolaborazioaren ondorioz errefuxiatuak erreprimitzeko ekintzek Ipar Euskal Herriko mugimendu abertzalea astindu eta hauspotu zutela, eta errefuxiatuek egindako gose-grebak ere eragile politiko frantsesak mugiarazi zituela³ mugimendu abertzalearen protagonismoa astinduz. Gauzak horrela, gutxienez 1968tik aurrera Poulantzasek berriren bat izango zuen Euskal Herriaz eta haren askapen-borrokaz. Edozein kasutan, 1977an Jokin Apalategik idatzitako *Nationalisme et question nationale au Pays Basque 1830-1976* doktoretza-tesia irakurri zuen nonbait. Izan ere, Pierre Vilar historialari ospetsuarekin batera Poulantzas bera epaimahaian egon zen (Apalategi eta Iztueta, 2004)⁴. Zentzu horretan, Apalategik egindako Euskal Herriaren kokapena eta deskribapen klasista irakurri zituen, horrekin batera zihoan euskal abertzaletasunaren eta independentismoaren bilakaeren azalpena barne.

3. Errefuxiatuen kontrako jazarpenak 1969ko Baionako Aste Nagusian du hasiera, Frantziako Gobernuak 16 errefuxiatu Ré uhartera kanporatu zituenean. Geroago etorriko ziren traba administratiboak eta mota guztietako oztopoak, 1970eko gose-greba Juan Jose Etxabe euskal militantearen espetxeratzeagatik eta 1972ko gose-greba Euskal Gogoako gazteen aldetik. Bitarte horretan, Enbataren itzaltzea dator mugimendu abertzalearen gidaritzan, Euskal Gogoaren lidergoa eta HAS alderdiaren sorrera.

4. Artikulu horretan azaltzen dute egileek Jokin Apalategiren *Los vascos, de la nación al Estado* liburuak, 1979ko urtetik aurrera salgai zegoelarik, 1980. urtean jasandako jazarpen judizialari aurre egiteko, Miguel Castells abokatuak tesian parte hartu zuten intelektualek lekukotasuna erabili nahi izan zuela. Hor gehitu beharrekoa zen Nicos Poulantzas epaimahaian Pierre Vilarrekin batera egon izanagatik, baina ordurako hilik zegoen.

Zentzu horretan, Euskal Herriaz jakitun zen, azaletik izan arren. Horregatik zenbaitetan aipatu ere egin zuen euskal nazioa. Adibidez, 1974an idatzitako *Les classes sociales dans le capitalisme aujourd'hui* liburuan, ekoizpen-modu kapitalistaren internazionalizazio-fasearen inguruko analisisiaz aritzean kapitalaren hedapen- eta zabalpen-fasea zelarik —AEBren gidaritzapean egiten ari zena—, nazio zapalduen joera autonomista eta independentista areagotzen ari zela zioen; batasuna dakarten egitura supranazionalen aldeko joera eragin beharrean (Poulantzas, 1977a, 75-76. or.). Alegia, inperialismoak nazio-estatuaren gainditzea ekarri ordez, nazio-estatuaren hausturarako joerak ematea ondorio politikotzat ulertu zuen nazionalitateen berpizteen eraginez. Eta Britainia, Euskal Herri eta Okzitaniaren kasuak aipatu zituen zentzu horretan (*Idem*). Frantziako Estatuko auzi plurinazionalaz zertxobait jakin zuen beraz.

Badakigu, geroago ere, Euskal Herria gogoan izan zuela 1978ko *La Calle* aldizkari espainolean (2024) egin zioten elkarrizketa batean esandakoagatik. Bertan ezker europarraren tradizio nagusiak nazioarekiko izandako jarrera salatu zuen; nazionalismoarekiko jarrera, izan aldekoa edo izan kontrakoa, haren ustetan ezin zitekeelako izan ezkerraren zuzendaritzapean egotearen edo ez egotearen araberrakoa. Autodeterminazioarekiko jarrera eta irakurketa estalinista oker zegoen, zentzu horretan, Poulantzasen iritziz; posizio instrumentalista alboratu beharra zegoen horrenbestez. Herrien eskubide hura baldintzarik gabekoa zela ulertzen baitzuen. Baina aipaturiko elkarrizketan, gehiago luzatuz, euskal abertzaleen askapen-borrokaaren autonomia hizpide izan zuen modu arinean eta gainetik izan bazen ere. Izan ere, haren autonomia eta asmo autozentratu erabatekoaren aukerak zalantzan jarri zituen Espainiako Estatuaren demokratizazioaren alde. Hau da, aldi berean Espainia demokratizatu eta deszentralizatu behar zelakoan egin zion erreferentzia Euskal Herriari, hori egin ezean saiakera hutsalean omen zebilelako Euskal Herria. Kontua da, oster, 1976tik KAS Alternatibaren bueltan egituratzen hasia zela mugimendu independentista ezkertiarra, hain justu Espainiako Estatuarekin negoziazioa eta haren demokratizazio eta deszentralizazioa proposatzen zuten zazpi eta bost puntuen inguruan⁵.

Alabaina, 1975ean Portugali, Greziari eta Espainiako Estatuko egoera politikoei eskainitako *La crise des dictatures* testuan, Espainiako egoera eta bilakaerari emandako analisisetan, Espainiako Estatuko auzi plurinazionalaren eta Euskal Herriaren borroka herritar antifrankistaren falta suma daiteke; izan ere, Espainiako botere-blokean eman ziren kontraesanei dagokienez euskal herritarrek egindako ekarpen eta borrokek leku txikia dute, eta behin bakarrik egiten zaio estaturik gabeko nazio zapalduen nazionalismo aurrerakoiari, alegia klase ezberdinen batasunerako joera progresista duen nazionalismoari, aitortza (Poulantzas, 1976, 80. or.). Hutsune nabaria du oposizio antifrankistaren eremu nagusietako bat Euskal Herria izan zela

5. KAS Alternatibaren puntuek euskal askapen-borrokaaren matxinada-estrategia alboratzen zuten eta Espainiako Estatuarekin negoziatziorako proposamen bat osatu ere. Edukian Hego Euskal Herrian baldintza demokratiko minimo batzuk bermatzeko eta borroka armatua gatazkaren ekuaziotik kentzeko proposamena zen. Eta balizko negoziazio horretan ezinbestekoak izango ziren honakoak —bai 1976ko bertsioan eta baita 1978ko bertsioan ere—: Amnistia; eskubide demokratikoen edo alderdi politiko guztien legalizazioa; burujabetza nazionala aitortuko zuen Hegoalderako Estatutua; indar errepresiboen disoluzioa edota kanporaketa; eta langileen baldintza ekonomiko eta sozialen hobekuntza.

ez identifikatzean. Zentzu horretan, fokua Estatua duten nazioen baitako prozesu politiko eta nazionalista progresistetan izan zuen jarrita. Besteak beste, horien baitan *burgesia txiki berria* zenaren paper politikoagatik, langileriarekin —sintonia askatzaile eta demokratikoak direla eta— baturik, eragin politiko nabarmenak sortzen baitzituzten Estatu aparatuetan kontraesanak areagotuz. Grezia eta Portugal izango ditu hizpide zentzu horretan. Aldiz, Euskal Herrian askapen-borrokaeren bueltan osaturiko abertzaletasun iraultzaile eta interklasistak, ENAM delakoan artikulaturik, Espainiako Estatuan sortutako kontraesanen areagotzeaz ez dugu ezer aurkituko.

3. Euskal Herrian Poulantzas

Esan dugu jada Poulantzas ezaguna egin zela Frantziako 1968ko Maiatzaren gertakizunen bueltan. Urte hartan kaleratu zuen *Pouvoir politique et classes sociales. De l'Etat capitaliste* testua Maspero argitaletxe eta liburu-dendan, maiatzaren 10ean. *Petit Collection* bildumaren barne kokaturik argitaratu zuen Francois Maspero editoreak, eta maiatzaren bigarren hamabostaldirako 40 000 ale saldu omen ziren (Gorini, 2024, 46. or.). Parisko eztanda kultural eta politiko horretan, marxismoaren baitako eztabaidak sekulakoak zirelarik, orduantxe lortu zuen Poulantzasek ospea auziari dagokionez. Testuinguru hartan bilakatu zen Estatuari buruzko teoriarari eta intelektual *rockstar* bat. Imajina dezagun, neurria hartzeko, haren klaseak jendetsuenetarikoak zirela soziologiaren eremuan. Kostis Kornetisek «Nicos efektua»-z ere hitz egingo du (*Ibidem*, 47. or.).

Gauzak horrela, Euskal Herrira haren testuak noiz eta nola heldu ziren zehaztea ez da kontu erraza. Hego Euskal Herrian horrelako argitalpenak klandestinoki zabaldu behar zirelako halabeharrez, eta testu marxista edota abertzaleen zabalpena debekatua edo jazarria izan zelako Francok bizirik zirauen bitartean bederen. Hala ere, Ipar Euskal Herrian, Parisko eztrandak eta bertako argitalpen ezkertiar eta alternatiboen olatuak piztu zuten zenbait euskaldunen gogoia Euskal Herrian antzeko zerbait sortzeko. Modu horretan zabaldu zuten Maite Idirinek, Joseba Jakak eta Jokin Apalategik Zabal liburu-denda eta argitaletxea 1974an Baionan. Alde batetik, François Masperoren liburu-denda paristar eta ezkertiarra erreferentziazat harturik, eta, bestetik, giro antifrankista espainolari loturiko —eta Parisen sortuak izan ziren— Ruedo Ibérico eta Ebro argitaletxeak eredu gisa bereganaturik. Euskal Herrian Masperok eta aipaturiko argitaletxeek zuten funtzio dibulgatzaile horren antzera espazio eta proiektu bat beharrezkoa zelakoan ekin zioten, testu abertzaleak eta ezkertiarak zabaltzeko asmoz. Hala, Zabal, bai dendak eta baita argitaletxea ere, Euskal Herriko testu askoren sarbidea izan zela ez dago dudarik. Eta susmatzekoa da Poulantzasen testuen sarbide ere izan zela. Izan ere, Paulo Iztuetak (2015, 10. or.) esan bezala, «euskal marxismoaren eraketan Frantziako autore marxistek eragin nabarmena izango dute, ziur aski *Zabalen* idazten duten lankideek, bereziki Hegoaldekoek, Parisen ikasitakoak direlako».

Edozein kasutan, ez dugu ahaztu behar ere Siglo XXI de España Editores argitaletxea 1967an sortu zela; *Poder político y clases sociales* espainolez Mexikon argitaratu zuela lehen aldiz 1969an; eta 1976rako Espainiako Estatuan laugarren edizioa egina zuela. Era berean *Fascismo y dictadura* 1973an argitaratu zuten lehen

aldiz Espainian; *Las Crisis de las dictaduras* 1976an; *Las clases sociales en el capitalismo actual* 1977an; eta 1979an *Estado, Poder y Socialismo*. Euskal Herrira zer hurbildu bazegoen beraz, bai espainolez eta bai frantsesez. Horrenbestez, intuizioz bada ere, imajina daiteke Poulantzasen testuek harrera izan zutela euskal eremu militante abertzale eta marxisten artean. Aipatzekoak dira, adibide argigarri gisa, *Anaitasuna* aldizkariak 1979ko urriko bigarren hamabostaldian, Poulantzasen heriotzaren harira, haren omenez Pello Salaburuk (1979) batetik, eta Ch. D. ezizenaren sinadurapean bestetik (1979), argitaratutako bina artikulua. Baita ere, *Jakin* aldizkarian Jokin Apalategik (1979) soziologoaren omenez argitaratutako orrialdeak. Baina haren euskal harrera teorikoaren berri, eremu militante edo organikoan batik bat, bestelako testuek erakutsiko dute modu adierazgarriago batean. Horren erakusle izan daitezke 70eko hamarkadan zehar euskal askapen-mugimendua osatzen zuten milien (ETA-m), autonomoen (Komando Autonomo Antikapitalistak) eta polimilien (ETA-pm) ildo nagusietan ibilitako erreferentziazko hiru intelektual.

Ordena horretan, Jokin Apalategiren 1977ko *Los vascos, de la nación al Estado* (2006) liburua halaberharrez aipatzekoa da. Bertan onartzen baitu liburu horren osaketarako nazio-auziaz Nicos Poulantzasek emandako kurtsoak jarraitu zituela eta liburuaren lehenengo zatia dagokionez, Euskal Herriaren azterketa soziologiko klasistari dagokiona, behin eta berriz aipatzen dituelako 1968ko *Pouvoir politique et classes sociales* eta 1975eko *La crise des dictatures*. Haren marko teorikoan oinarritzat ditu, besteak beste, Althusserren eraginez Poulantzasek erabilitako ekoizpen-modu kapitalistaren osaeran dagoen mailaketa ideologikoa, politikoa eta ekonomikoa (Apalategi, 2006, 54. or.); maila horien oreka- eta kohesio-lanetan diharduen Estatuaren definizio estrukturalista⁶ (*Idem*); *burokrazia* goi-burgesiaren baitan kokatzen den kategoria sozialaren ulerker⁷ (*Ibidem*, 55. or.); eta *burgesia txiki berriaren* gainera kezka euskal gizartean bankuetako aurrezki-kutxetako eta enpresetako langile ertainak aipatzerakoan (*Ibidem*, 78-79. or.)⁸.

Tradizio autonomo eta libertarioan, aldiz, Emilio Lopez Adanek ere Poulantzasek erabilitako⁹ *barrualdeko burgesia*, *burgesia nazionala* eta *burgesia erosle* kontzeptuak esku artean izan zituen Euskal Herriko burgesiaren egoeraren berri emateko (López Adán, 1979, 87-118. or.). Zentzu horretan, defendatuko du Beltzak Euskal Herrian burgesia nazionala baino areago kapitalismo espainolari loturiko barrualdeko burgesia bat dagoela, eta euskal burgesia nazional horren aurka ere egin beharra dagoela mundu-mailako kapitalismoaren partaide gisa (*Ibidem*, 110. or.). Era berean,

6. Poulantzasek paradigma althusseriarretik emandako Estatu kapitalistaren definizioa dugu, 1968tik 1974ra erabili izan zuena ikuspegi erlazionalago bat garatu arte. Definizio horren testurik oinarritzkoena Jokin Apalategik aipatzen duen *Pouvoir politique et classes sociales* da.

7. Poulantzasen eztabaidagaietako bat izango da burokraziaren definizio marxista egokia. Garai horretan eliteen teoriari eta Wright Millsen tesiei aurre egin nahian burokrazia kategoria sozial gisa defendatu zuen klase sozial edo elite politiko gisa ulertu beharrean. Hori modu argian garatu zuen 1968ko *Pouvoir politique et classes sociales* testuan.

8. Egia da momentu horretan Poulantzasen testurik ez duela aipatzen, baina *La crise des dictatures* testuan terminologia berri hori erabiltzen du teoriko marxista greziarrak kapitalismoaren fase berri horretan sortzen ari ziren langile kualifikatuak eta arduradun ertainak izendatzeko.

9. Poulantzasek nozio hauek modu argiengan azaldu zituen 1974ko *Les classes sociales dans le capitalisme de aujourd'hui* lanean, baina Beltzak erreferentzia gisa darabilen liburua 1975eko *La crise des dictatures* da.

burgesia txiki berria nozio poulantziarraren¹⁰ berri ere eman zuen (*Ibidem*, 65. or.) haren garapenaren eta langile-klasearekin egindako abertzaletasunaren inguruko baturaren joera orokorra Euskal Herrian kokatzeko eta baloratzeko.

Bestalde, polimilien apustuaren barruan Poulantzas ezaguna egin zen Mario Onaindiak bere memorietan erakutsi edo onartu bezala (2004). Poulantzasen idazkiak erabili zituzten 70eko hamarkadaren erdialdean borroka instituzionalaren eta masa-borrokaaren behar iraultzailea justifikatzeko EIA alderdiaren sorreraren aurreko hausnarketetan (*Ibidem*, 14. or.); borroka elektoraldaren eta masa-borrokaaren osagarritasuna justifikatzeko 1977ko Espainiako hauteskundeetan testuinguruan (*Ibidem*, 97. or.); EIA alderdiaren barruan emandako marxismo-leninismo ortodoxoaren kontrako urrunketa elikatzeke (*Ibidem*, 233. or.); edota *Arnasa* aldizkariaren 7. alean, koiunturaren eta estatismo autoritarioaren inguruko hausnarketak egiteko (*Ibidem*, 522. or.; Onaindia, 1979). Interesgarria da testu hori, *La lucha de clases en Euskadi (1939-1980)* gisa argitaratua, izan ere, bertan Mario Onaindiak kritikatu zuen Poulantzasek *La crise des dictatures* testuan egindako «aurreikuspen poulantziarren oinarri zientifikorik eza» (1979, 7. or.), berorrek, ezker espainolak bezala, garai batean «modu akritikoan» bereganatu zituelako (*Ibidem*, 21-22. or.). Modu horretan, zenbait analisi poulantziar auzitan jarri zituen, baina kategoria poulantziarretatik urrundu gabe betiere. Are gehiago, estatismo autoritarioaren gaineko teorizazioak¹¹ erabili zituen erreforman murgildurik zegoen «erregimen frankistaren forma berria» ulertzeko erabat baliagarria zelakoan: «Zesarrari, Zesarrari dagokiona» esango du Onaindiak greziarra goraipatuz (*Ibidem*, 163. or.).

Orotara, argi dago euskal askapen-borrokaaren baitan, aitortza intelektual eta teorikoa zuten zenbait militantek Poulantzas irakurri zutela 70eko hamarkadan. Noiz eta euskal askapen-borrokak marxismoaren olatu teoriko internazionala bereganatu zuenean. Marxismoa iraultzari eta askapen nazional eta sozialari hizkera analitiko eta zientifikoa emateko asmoarekin bereganatu zuen askapen-mugi-menduak, eta eztabaidak eztabaida, Euskal Herria eta haren osaera klasista deskribatzeko baliatu zuten batez ere Poulantzas beste teoriarari eta eragin batzuen artean. Askapen-borrokak analisi klasista baten beharra zuelakoan, Poulantzasen zenbait tesi eta nozio erabilgarriak izan ziren Euskal Herria oligarkia espainol eta frantsesen pean ulertzeko, Euskal Herriko burgesia nazionala edo barrualdekoa ulertzeko adibidez, burgesia txiki tradizionalaren eta berriaren ekarpen nazionala edo progresista balioan jartzeko; edota euskal langileriaren eta burgesia txikiaren arteko aliantzaren alde arrazoiketak eratzeko, besteak beste. Bigarren maila batean izan ziren erabiliak Poulantzasen testu politiko estrategikoak, eurokomunismoaren eta sozialismo demokratikoaren aldekoak¹². Azken horiek polimilien artean ezaguna-

10. Oraingoan ere 1975eko testu poulantziarra da erreferentzia; Poulantzasek, aldiz, 1974ko testuan modu garatuagoan azaldu zituen burgesia txiki berriaren nondik norakoak.

11. Poulantzasek 1978ko *L'état, le pouvoir, le socialisme* liburuan garatu zituen estatismo autoritarioaren inguruko hausnarketa garatuak kapitulu bat eskainiz gaiari. Mario Onaindiak hori izan zuen erreferentzia, Siglo XXI editorialak 1978an Fernando Claudinek itzultitako espainolezko argitalpena ziurrenik. Hala ere, Poulantzasek lehenagotik estatismo autoritarioaren inguruko garapen batzuk egin zituen, besteak beste berak editaturiko *La crisis del Estado* (1977b, 72-76. or.) liburu kolektiboan, adibidez.

12. Artikulu honetan erabilitako *La lucha de clases en Euskadi* liburuan, EIA alderdiaren *Arnasa* 7 koadernoan izan zen horretan, bertan Mario Onaindiak ezkeraren antolakuntza politiko berri baterako deia egiten du, gizarte zibilean murgiltzeko alderdi forma berri bat eskatuz eta baita ere sozialismo eta askatasun demokratikoen arteko gatazka gainditzeko duena (Onaindia, 1979, 179. or.).

goak izan ziren, hain justu ildo eurokomunista bereganatu zuenean EIA-EE alderdiak. Alabaina, Poulantzasen nazio-auziaren inguruko azalpen teoriko esplizitu eta garatuenak, 1978ko *L'état, le pouvoir, le socialisme* testuan agertzen direnak, baztertuak, ezagutu gabeak edo ahaztuak izan ziren aipaturiko ildo eta militanteen analisisen artean oro har.

4. Nazio-auzi poulantziarraren zertzeladak

Nazio-auziaren eztabaida pil-pilean zegoen tradizio marxista mendebaldarraren barruan 70eko hamarkadan. Ziur asko munduan gertatzen ari ziren askapen nazionaleko borroka eta prozesuek kausatuta. Alegia, 1959ko garaipen kubatarak, 1962ko Aljeriaren independentziak, askapen nazionaleko iraultza txinatarak, Vietnamek, Angolak, panarabismo progresista eta sozialistak, eta Frantziako Estatuaren baitako bretoien, okzitaniarren eta euskaldunen borroka nazionalak aitzakia egokia sortzen zuten Frantziako eta Sorbonoako eremu progresistetan. Apalategik eta Iztuetak esango dute, zentzu horretan, «nazio arazoarena gai bedeta» eta «modan» zela (Apalategi eta Iztueta, 2004). Horrenbestez, Nicos Poulantzasek ere gaiari ekin zion, Michael Lowy, Pierre Vilar eta Georges Haupt intelektual marxistek sakonean jorratu zuten bezala. Edonola ere, orduko giro frantsesean nazio-auziaren inguruko erreferentziei neurria hartzeko, Apalategik eta Iztuetak (*Idem*) diote, behin eta berriz esku artean zirela Maxime Rodinson-en 1968ko *Le marxisme et la nation*; George Haupt, Michale Lowy eta Claudie Weillek 1974an idatziriko *Les marxistes et la question nationale* eta Poulantzasen 1978ko *L'état, le pouvoir, le socialisme* testuak. Horrela gauzak, harritzekoa da Poulantzasen hausnarketek ibilera handiagorik ez izatea gurean, ez baitugu ezer bereziki aurkitu. Alabaina, gabeziak gabezia, mugak muga, edota kilometroak kilometro, pentsalari greziarrak bazuen nazioaz egindako zeinbait teorizazio.

Gauzak horrela, Poulantzasek premisa batetik ekin nazioaren inguruko hausnarketari: tradizio marxistan eztabaidak historikoki ugari izan arren, ez zuela nazio-auziari buruzko teoriarik garatu (Poulantzas, 1987, 109. or.). Nazio-auziaren hausnarketak Marx eta Engelsen garaitik hasita, Leninen, austromarxisten teorizazioetan, Stalinen edota Maoren orrialdeetan aurki daitezkeen arren, «errealitate nazionalaren gutxiespena nagusi izan dela esatea motz geratzea» dela dio Poulantzasek (*Idem*). Horregatik berak seinalaturiko urritasun-eremu horretan ekarpen teoriko bat egiten saiatu zen. Batez ere, Estatu kapitalistaren ainguratzea nazio modernoetan gertatzen zela defendatzen zuelako; bai garaiko inperialismoaren fase finantzarioak eta internazionalizazioak gora egin arren (1977a, 69. or.; 1984, 114. or.), eta bai horrekin batera eskala nazionalak gaindituak izango zirela zirudien arren. Estatu kapitalisten sustraitzea, ekoizpen-modu kapitalistarena bezala, nazionala zela defendatu zuen beraz; eta bai Estatuak eta baita formazio sozialak ere, molde eta eduki nazionaletan aurkezten direla halaberharrez argudiatu. Zentzu horretan, nazioen errealitate soziokulturalen azalpen trans-historikoetan murgildu beharrean —antropologo sozialen eta historialarien lana dena—, baldintza kapitalistetan Estatuarentzat ezinbestekoak diren nazio modernoak heldulekuak hartu zituen aztergai. Hala, nazioaren inguruko teoria orokor bat eman beharrean, nazio modernoaren inguruko teoria konkretu eta materialista bat —hau da, gatazka

eta kontraesan politiko eta sozialen ondorio gisa— eskaini nahi izan zuen, nazioen zenbait kontu teoriko orokor baieztatzea heldu bazen ere.

Alabaina, Poulantzassen benetako kezka intelektuala Estatu kapitalista zen. Eta azalpen, hausnarketa eta analisi teoriko horri jarraituz, Estatu kapitalistaren forma nazional herritarra azaldu nahi izan zuen. Alegia, Estatu kapitalistak zergatik hartzen ote duen beti eduki eta forma nazionala, edota zergatik ote diren Estatuak nazio-estatuak. Hortik garatu zuen nazio modernoaren azalpena, betiere Estatu kapitalistarekiko hausnarketaren menpe. Eta norabide horretan, abiapuntu gisa, identifikaturiko joera historiko bi mahaigaineratu zituen; batetik Estatu kapitalistek nazio jakin bat bereganatzeko joera dutela, eta bestetik, nazioek Estatu bilakatzeko joera dutela —beti lortzen ez duten arren— (Poulantzas, 1987, 111. or.). Modernitatearen bi joera lirateke greziarraren arabera, eta nazioak errealitate aurremodernoak direla onartu arren (*Ibidem*, 109. or.), nazio modernoan azterketak nazioari buruzko azalpenak ere eskainiko zituelakoan zegoen. Gauzak horrela, nazio modernoan azalpenak nazioek dituzten bi dimentsioei eta euren aldaketa kapitalistek erreparatzera bultzatu zituen. Hots, nazioaren osaketan oinarritzekoak diren lurraldetasuna batetik, eta dimentsio historiko edo tenporala aditzera bestetik. Baina batez ere, edozeren gainetik, nazio modernoaren eraketan baldintza kapitalistek ekarritako aldaketak aztertu eta azaltzera.

Egia da Poulantzassen arabera nazio modernoaren osaketan zentrala dela, ekoizpen-modu kapitalistak bideratutako denbora-dimentsioarekin —denbora-matrizea— eta lurraldetasunarekin —matrize espaziala— batera, hizkuntza nazionalaren osagaia (*Ibidem*, 137. or.). Zentzu horretan tartetxoa eskainiko dio Estatuaren eta hizkuntzaren arteko harremanari. Hizkuntza nazionalak ere sortzen baitu Estatuak, eta alderantziz. Baina ez hizkuntza, nazionalki izendaturik, Estatuak bereganatu egiten duelako bere antolaketaren artikulazioarako eta bere prozedimendu eta funtzioen mobilizaziorako. Ez Estatuak bere aparatu ezberdinak mugiarazteko erabiltzen duen hizkuntza nazionala delako soilik, baizik eta hizkuntza nazionalaren bilakaeran, Estatuak ere sortutako hizkuntza delako. Hau da, Poulantzasek dio Estatuak ez duela soilik, behin hizkuntza nazionala identifikaturik, hizkuntza bat modu pasiboan jasotzen. Hizkuntza nazionala bera eratu edo sortu ere egiten duela, besteak beste tenporalitate eta lurraldetasun kapitalisten arabera berrantolaturik (*Idem*). Hots, Estatuak hizkuntza jakin bat nazionala bilakatzerakoan, hizkuntzaren beraren osaketan aldaketak ekartzen dituela eta Estatuak bera osatu ere egiten dela hizkuntzaren bitartez. Estatuak hizkuntza nazionala egiten duela horrenbestez, eta alderantziz ere. Zentzu horretan, beraz, esan genezake Estatuaren ahalmen monopolikoek eragina dutela hizkuntzaren baitan, gramatika arautu eta estandarizatuak sortuz, hizkuntzari ortzi-mugak, erabilgarritasunak eta zentzu komun jakin batzuk egokituz, edota lexiko eta hiztegi zahar eta berriak arautuz besteak beste. Baina prozesu horretan, hizkuntza bereganatuz ere Estatu bilakatzen da Estatu bera. Hizkuntzaren bitartez antolatu eta gauzatu egiten baita botere estatala; nazioan eta herritar nazionalen gorputzetan, herritar hiztunak eta hiztun nazionalak eratzerakoan. Gauzak horrela, tartea eskaini zion Poulantzasek hizkuntzari nazio modernoan osaketan, baina bere arreta batez ere lurraldetasunaren eta denboraren dimentsio edo matrizean jarri zuen, haien forma kapitalistek nazioaren nolakotasun berri bat ekarri dutelako Estatu kapitalista bera ahalbidetuz.

Lurraldetasunari dagokionez, ekoizpen-modu ezberdinek espazioaren matrize ezberdinak dituztela argituko du (*Ibidem*, 118). Hau da, nazioek dituzten lurralde-konfigurazio eta ulermen ezberdinak sortuko dituztela nagusi diren ekoizpen-moduek, eta modu arin batean historiari eta ekoizpen-modu ezberdinei erreparatu eta gero¹³, ekoizpen-modu kapitalistak ekarritako lurralde-dimentsioa ulertzeko erak nazioak eraldatu egin dituela dio. Horrela bilakatu direla moderno zenbait nazio. Eta azalpen horietan, interesgarria da nabarmentzeko, Poulantzasek nazio modernoaren osaketari erreparatzerakoan, zenbait marxistak zirkulazioaren eta merkatuaren eremuari¹⁴ begiratu izana akats gisa identifikatu zuen. Ostera, Poulantzasek ekoizpenaren eremuari erreparatu beharra proposatu zuela (*Ibidem*, 112. or.). Haren arabera, jabetzan eta ekoizpen-harremanetan baitaude nazio modernoaren osaketaren kausak. Hots, lanaren banaketa kapitalistak eta ekoizpen-modu kapitalistak lurraldearen zatiketa dakartenez —jabetza pribatuak ekarritako hezitzeekin, partzelekin eta ekoizpen-harremanek inplikaturako lan pribatuen banaketekin—, lurraldetasunaren beste ulerkerak bat kausatu dutelako. Alegia, lurraldea zatikatua agertzen da (*Ibidem*, 123. or.). Baina logika kapitalistak zatiketa hori posible egiten duen bitartean, kapitalaren logika hedatzaile eta espansionistak, akumulazioaren inperatiboek gidaturik, zatiak bateratu eta homogeneousatzen dituela dio Poulantzasek, formazio sozial kapitalisten oinarria den lurralde-eremu jakin bat ahalbidetzen dela horrela. Modu horretan, zatikatu eta bateratu egiten da lurraldea formazio sozial kapitalista bateratuak sortuz.

Alabaina, hau ez litzateke posible aldi berean ari den Estatu kapitalistaren parte-hartzerik gabe; izan ere, Estatuak monopolizatzen eta gorpuzten ditu espazioaren antolaketa-prozedurak eta ulerkerak (*Ibidem*, 124. or.). Estatu kapitalistak eremu jakin batean, barrualdea nazionalki definitzen duelako batetik, eta kanpoaldea lurralde ez-nazional gisa zehazten duelako bestetik. Nazioaren lurraldetasunaren monopolioa duelako Estatuak, eta horrela sortu egiten ditu muga modernoak, lurralde eta subjektu nazionalak Poulantzasek ustetan. Estatuak zehazten baitu zerk osatzen duen eremu edo lurralde nazionala —formazio sozial-nazional kapitalistaren hedapena—, noraino heltzen diren muga nazionalak, eta horren barruan dauden gizabanakoak herritar nazional gisa izendatzen dituelako. Mugimendu horretan ikusiko du Poulantzasek genozidioaren eta totalitarismoaren kimua (*Ibidem*, 127. or.) azken terminoetara eramanda. Edozein kasutan, forma demokratikoetan ere, Estatu kapitalistak bere baitan nazio ezberdinak bil ditzakeen arren, naziotasun jakin bat bereganatuz eta erreproduzitzen, besteak baztertu eta azpiratu ditzake formazio sozial kapitalistaren hedapena nazionalki modu berdinean zehaztuz. Eta operazio horretan, homogeneousazio eta asimilazio nazional kapitalistari ekinez aldi berean, zizelkatzen eta egonkortzen du nazio moderno Estatuak.

Nazio modernoaren eraketa-prozesuan Poulantzasek denbora-dimentsioaz ere dihardu. Hots, nazio modernoek ekoizpen-modu kapitalistak ekarritako denbora-matrizeari erreparatu dio. Eta eremu horretan, ekoizpen-modu kapitalistak

13. Gizarte aurrekapitalistetan, antzinako gizarteetan eta feudalismoan, matrize espazialak ezberdinak zirela esango du, ekoizpen-harreman eta lanaren banaketa aurrekapitalistek bestelako espazio- eta lurraldetasun-ulermenak sortuko zituzte. Horretarako begiratu 119-122. orrialdeak.

14. Tradizio marxistan joera ohikoa izan da nazioen osaketaren inguruko azalpenak merkatu kapitalistaren batasun-beharraren pean kokatzea. Poulantzasek baztertzeko ditu.

aldaketak ere ekarri dituela argudiatu zuen ekoizpen-modu aurrekapitalistekin alderatuz gero (Poulantzas, 1987, 131. or.). Alegia, nazioek modernitaterako pausoan aldaketak jasan dituztela Antzinaroko gizarteekin eta feudalismoarekin konparatuta (*Ibidem*, 128-129. or.). Izan ere, Poulantzasen arabera, industria kapitalistarekin eta kate-produkzioarekin, denbora bera segmentutan, zatiturik, momentu berdinetan banaturik, pilagarri eta atzera-bueltarik gabekoa ageri da (*Ibidem*, 131. or.). Baldintza kapitalistek agintzen duten testuinguruan denbora linealki azaltzen da eta helburu jakin batekiko zuzenduta dago: akumulazioaren erreprodukzio handitura begira, alegia. Alabaina, formazio sozial bateko denbora ezberdinak bateratu eta unibertsalizatu beharra eskatzen du horrek; alegia, denboraren homogeneousazioak eta erreferentzialtasun bakarrak ekoizpen-harremanek, lanaren banaketak, ekoizpenak eta zirkulazioak koordinaturik eta bateraturik aurrera egin dezaten. Hain zuzen, posible dena Estatu kapitalistari eta haren aparatuei esker. Haren gorpuzkeran bertan txertaturik baitago denbora kapitalista Poulantzasen arabera (*Ibidem*, 134. or.). Izan ere, Estatu kapitalistak ditu denborak berdintzeko ahalmena, gaitasuna eta monopolioa. Estatuak bilakatzen da erreferentzia-marko eta arau, eta berak ezartzen die formazio sozialaren eremu edo sektore ezberdinei erritmo homogeneouso eta bateratua (*Idem*). Estatuak du, horrenbestez, denboraren monopolioa eta Estatuak kokatzen du denbora kapitalistaren nagusitasunean formazio soziala eta nazionala. Are gehiago, prozesu horren barnean, Estatu kapitalistak nazio jakin baten ulerkera historikoa, tradizionala eta denborazkotasuna bereganatzea eta definitzea dakarren ahalmen politikoa du. Nazioaren jatorria, orainaldiko kokapena eta etorkizuneko bilakaera definitzeko gaitasuna izango luke hortaz. Zentzu horretan, beraz, tradizioa, historia nazionala eta etorkizun nazionala marrazteko eta moldatzeko eskusibitatea ere bai. Naziokideei ohiturak, memoriak, orainaldiko kokapen narratiboak, etorkizuneko espektatibak eta desio kolektiboak irudikatzeko eta eskaintzeko ahalmena. Orotara beraz, Poulantzasen arabera, Estatuaren bitartez lurreratzen da historia edota denbora nazionala, eta historia bihurtzen da lurralde nazionala (*Ibidem*, 136. or.).

Poulantzasen argibideetan, nabari denez, nazio modernoek sorrera eta ekoizpen kapitalistaren hedapena Estatu kapitalista bera ekuaziotik kendu gabe azaltzen ditu. Ekoizpen-modu kapitalista gorpuztu egiten baita, pentsalari greziarraren arabera, formazio sozial-nazionala, eta orobat, Estatu kapitalista sustraitu egiten delako nazionalki osatutako formazio sozial kapitalistetan. Operazio berdinean, bada, Estatu kapitalista da ekoizpen-modu kapitalistaren eta nazioaren arteko loturarako antolaketa politiko instituzionalizatua; eta nazioa dena, moderno bilakatu egiten da Estatuaren tronu-lanagatik. Estatuak bultzatuko luke nazioa modernitatera logika poulantziarrean. Eta zentzu horretan, esan genezake, Poulantzasek horrela esan ez arren, modernitateko Trinitate Politikoa osatzen dutela hirurek: nazio modernoak, Estatuak eta ekoizpen-harreman kapitalistak. Ez legokeelako haren aburuz, ez-nazionalizatutako ekoizpen-modu kapitalistarik, ez eta Estatu kapitalista ez-nazionalik ere. Horregatik, Estatu kapitalistak dakarren berritasuna litzateke nazio jakin baten lurralde-dimentsioa eta denbora-dimentsioa monopolizatu izana ekoizpen-modu kapitalistaren formak lurrean eta denboran nazionalki iltzatzeko, baina Estatu bera eta nazio moderno bera finkatzen diren prozesu berdinean. Ez

baitago prozesu kausal linealik. Horrenbestez, Estatu nazionala, nazio modernoa, ekoizpen-modu kapitalista, klase sozialak, aldi berean eta elkarrekin osatuko lirateke logika poulantziarren; «osaketa-lurzoru berdina dutelako» (*Ibidem*, 140. or.).

Alabaina, Estatu kapitalista bezala, nazio modernoa klaseen arteko borrokak eta indar-harremanak gurutzatzen dutela dio pentsalari greziarrak (*Ibidem*, 138. or.). Nazio modernoa, Estatu bezala, indar-korrelazioen kristalizazio, ondorio eta emaitza litzateke; borroka soziopolitikoen mendeko etengabeko materializazioa. Nazio modernoa, tentazio idealistetatik urrun, ez baita Poulantzasen ustez burgesiaren proiektu arrazionala. Nazio modernoaren eraketak ez baitie monolitikoki burgesiari edo haren frakzio ezberdinei erantzuten proiektu eta deliberazioei jarraituz. Hau da, burgesiak nazioaren bitartez akumulazioaren logika gauzatu eta bereganatu arren, nazio modernoa etengabeko lehian legoke Poulantzasentzat (*Idem*). Nazioa, Estatu kapitalista bezala, klaseen arteko borrokaren eta indar-korrelazioen arabera litzateke, antagonismoen eta kontraesanen mendekoa. Izan ere, nazio modernoa osatzen duten lurraldetasuna eta historikotasuna ulertzeko era ezberdinak litzukete bai langile-klaseak eta bai burgesiak (*Idem*). Alegia, nazio modernoa haren markoa edo gramatika konpartitua izanik ere, denbora eta lurraldetasuna ez lirateke berdin ageri klase antagonikoentzat. Ikusi besterik ez dago, adibidez, nazio guztietan historia nazionala ulertzeko egon ohi diren modu ezberdinak. Edota lurraldetasunari dagokionez, formazio sozial batean egon daitezkeen hirigintza nazionalarekiko edo lurralde-antolaketaarekiko ulerkera ezberdinak baldintza kapitalisten nagusitasunaren pean egon arren¹⁵.

Poulantzasen azalpenen zertzeladekin bukatzeko, nabarmentzekoa da burgesiaren eta langile-klasearen osaketak nazionalki gertatzen direla defendatu zuela. Noiz eta 70eko hamarkadan, kapitalismoaren finantzarizazioarekin, internazionalizazio- eta transnacionalizazio-fasean murgildurik, kontrakoa ematen zuenean. Alegia, ofentsiba neoliberal hasita, nazioartekoa zirudien burgesia ezberdinen oldarraldiak Pinocheten Txiletik hasita. Zentzu horretan, Poulantzasek ekoizpen-modu kapitalistaren, burgesiaren edo langileriaren esentzia anazionalik ez legokeela defendatu zuen. Klase sozialek materialitate nazionala dutela beti (Poulantzas, 1984, 141. or.). Formazio sozial kapitalista eta Estatuak bezala soilik nazionalki gorpuzten direla defendatu zuen, eta horrela soilik azaltzen dela kapitalismoaren zabalpen eta bilakaera desberdin eta konbinatuaren fenomeno nazioz nazio¹⁶. Gauzak horrela, Poulantzasek kategorikoki zioen, baldintza hauetan sozialismorako trantsizioa nazionala besterik ezin dela izan (*Idem*), baina ez aurretiaz finkaturiko eta pentsaturiko eredu unibertsalki baliagarri bat tokian tokiko berezitasunetara lurre-ratzearen aldeko terminoetan pentsatuz. Baizik eta ekoizpen-modu kapitalistaren baldintza estrukturalen eta nazionalen ondorioz, trantsizio nazional propio eta ezberdinak besterik ez legokeelako.

15. Merkantzien zirkulazioan oinarritutako transnacionalen protagonismora edota garraiora begirako hirigintza *versus* bizitza komunitarioa, espazio komun eta kolektiboak lehenesten dituen hirigintza talkaren adibideren bat jartzearen.

16. Horrek ez du esan nahi Poulantzasek ez zuenik uste kapitalismo internazionala existitzen ez denik. Ikusi Nicos Poulantzasek idatzirik *La internacionalización de las relaciones capitalistas y el Estado-nación* testua (1977a, 36-83. or.). Bertan AEBren inperialismoaz, kate inperialistaz eta dependentzia-harremanez eta kapitalismoaren internazionalizazioaz dihardu.

5. Nazio-auziaren inguruan fikziozko elkarriketa bat

Alabaina, Euskal Herrira ekarriz, pentsa liteke aipaturiko hausnarketen nondik norakoak hankamotz gera zitezkeela zapalkuntza nazionala jasan eta estatutik gabeko nazio baten kokapenerako. Izan ere, oro har, jada Estatu nazionala bereganatu duten nazio modernoek gainera hausnarketa batean datza pentsalari greziarrak eskainitakoa. Batez ere, edota soilik, nazio-estatuaren forma nazionala eta herritarra ulertzeko garatutakoa; nondik eta Frantziako Estatutik egindakoa. Eurozentrikoegia akaso (Odriozola, 2016, 16. or.) Hirugarren Munduari begiratzen zion euskal askapen-mugimenduarentzat. Zentzu horretan, estatudun nazioen teoria soilik eskaini izana salatzea posible zuten euskal militante abertzaleek. Ez baitzuen nazio zatitu eta zapalduen nazio-askapenerako pentsatu. Eta egiari zor, horrela izan zen, ez baitzuen argitu Europako nazio zapalduen biziraupen ez-modernoa zelan gertatzen den baldintza kapitalistetan, edota instituzionalizazio mugatuak jasan dituzten nazio zapalduak zer neurritan egin duten salto ere nazio moderno izatera. Azaldu gabe geratzen dira, halaber, Estatua eta formazio sozial-nazional propioa osatu aurretik nazio zapalduetako klaseen nolakotasuna eta haien baitako klaseen arteko gatazka nazional eta askatzaileak; alegia, nazio zapalduetatik osatutako borroka antiimperialistekin, askapen nazionalaren ardatzak politikoki ere osatzen ote dituen —posizio ekonomikotik harago— klase nazionalak besteak beste. Edo bestera esanda, estatutik gabeko nazioetan, nazio moderno eta Estatu bilakatu aurretik, burgesia nazional edota langile-klase nazionalak osa daitezkeen. Eta jarraitzearen, Poulantzasek ez zuen argitu ere nazio zapalduen askapen-prozesuek nazio moderno eta kapitalistetatik pasa behar ote duten, edota sozialismorako trantsizio nazional horiek ere modernitateak eskainiko luketen. Poulantzasek kontu eta auzi asko utzi zituen argitu gabe, are gehiago estatutik gabeko nazioen ikuspegitik. Baina elkarriketa aberasgarri eta sofistikazio posible batekiko prestutasuna erakutsi zuen; izan ere «hausnarketa hauek ez dituzte, gertutik ere, auzi guztiak asetzen» (1984, 143. or.). Horregatik, nazio-auziaren inguruko hartu-emana posible izan zitekeen euskal askapen-borrokaren eta Poulantzasen artean. Elkarrengandik zer aditu bazuten behintzat.

Izan ere, teoriarari greziarrak Euskal Herrian gertatzen ari zen matxinadari zehaztasun gehiagorekin begiratu izan balio, bere hausnarketak elikatuko lituzketen zenbait gako aurkituko zituzkeen. Batik bat 60ko hamarkadaren amaieratik, ETAk V. Biltzarrean, heldutasun politikoa lortu (Casanova, 2017, 84. or.; Odriozola, 2016, 248. or.) eta atzera-bueltarik gabe marxismoaren bitartez barneratu zuelako Euskal Herrian klaseen arteko borroka nazionalki garatzen zela. Erdigune imperialistan, Europan, bi estatuetan zatituriko Euskal Herrian, *klase-borrokak nazio-askapenaren forma* hartzen zuela eta *Euskal Herri Langile* gisa definituriko subjektu bat antolatu nahian zebilela ikus zezakeen Poulantzasek. Zentzu horretan, euskal militanteen teorizazioei jarraituz, Euskal Herrian zenbait klase nazional direla —burgesia ertaina eta txikia ere— baieztatzen zela ikas zezakeen ETAn *nazio-frontearen* aldeko hausnarketak zirela medio. Eta ildo horretatik tiraka, Euskal Herria klaseen arteko borrokaren *marko autonomoaren* definizioa ezagutu ere. Euskal lurraldeetan beraz, bai Espainiako eta bai Frantziako formazio sozialek osatutako klase sozialekin

batera, osagai kultural, ideologiko eta politikoak direla medio, Euskal Herrian klase sozialak nazionalki ere osatzen direla —askapen nazionaleko testuinguru batean— deskubritzeko aukera bazuen. Hain zuzen, unerren batean Poulantzasek berak baieztatutakoa estaturik gabeko nazio batera ekarriz. Izan ere, greziarrak zioen *burgesia nazionalak*, zenbait kontraesanen maila eta moten arabera, ideologikoki eta politikoki batasun bat osa zezakeela kapital inperialista atzerritarraren aurrean, eta askapen nazionaleko koiunturetan, *herriaren* parte izan (Poulantzas, 1977a, 67. or.). Melodia antzekoarekin Txabi Etxebarrietak zera baieztatu zuen 1967ko *Zutik*-en 44. alean: «Burgesia nazionala, Herri Langilearekin gure Askapen Nazionalan elkarlanean dirauen burgesia txikia batez ere, gaur, praktikoki, iraultzailea da eta, hortaz, herriaren parte» (Lorenzo Espinosa, 2018, 240. or.).

Era berean, Poulantzasek Euskal Herrian Lehen Mundu gisa izendaturiko baldintzetan *abertzaletasun iraultzailearen* teorizazio eta praktika konkretu bat aurki zezakeen. Alegia, marxismoa bereganatzen zuen antolakunde baten teorizazio eta praktika abertzale baten adibidea, zeinak nagusi ziren ortodoxia marxista askoren aurka abertzaletasuna elikagai askatzaile gisa ulertzen zuen. Izan ere, Europako alderdi komunistak, troskista eta maoista ezberdinak abertzaletasuna langileria burgesiaren jukutria ideologikoetan azpiratzeko erreminta bat zelakoan ari ziren bitartean —gogoratu ere ETArek barne-zatiketa maoista eta troskistek salatutakoa—, ETak nazio ukatu baten abertzaletasuna iraultzailea zela ulertu zuen irmoki bere V. Biltzarretik aurrera. Onintza Odriozolak (2016, 248-250. or.) zehaztasunez azaltzen duenez, V. Biltzarrean ETak aurreko biltzarrean defendaturiko tesi antikolonialistak berriz onartu zituen, baina batez ere, Hirugarren Munduko marxismora joz eta Mao Zedongek bultzatutako nazionalismo iraultzailearen printzipioekin bat eginez, Krutwigen eraginari jarraituz. Orduan definitu zuen antolakundeak bere burua *Nazio Askapenerako Mugimendu Sozialista* gisa, eta euskal errealtatea osorik iraultzeko zeregina jarri zion bere buruari. Nazionalismoa eta sozialismo marxista bateratu zituen hortaz, 1968tik aurrera, ETArek bilakaera baldintzatuz. Modu horretan 70eko hamarkadako zatiketa troskista gainditzeko baliagarria izan zuen sintesia, eta milien eta polimilien marko teoriko iraultzaileetan jarraipena izan zuen atzera-bueltarik gabeko oinarri ideologiko gisa. Eduardo Moreno Bergaretxe *Pertur* eta Jose Miguel Beñaran Ordeñana *Argala* buruzagi komunista eta abertzale nagusiak izango ziren bi adarren jarraipen abertzale iraultzailearen berrespenaren adibide argiak.

Bitartean, euskal askapen-borrokak 70eko hamarkadan Poulantzasek ortodoxia estalinistatik ihes egiten zuen pentsalari bat aurkitzeaz gain, autodeterminazio-eskubidearen defentsa irmo eta baldintzarik gabekoa egiten zuen intelektual iraultzaile bat aurki zezakeen. Areago, Europako tradizio marxista-leninista nagusiaren aurka nazioak kapitalismoaren aurretikoak izan zitezkeela zioen teorialari ezkertiarra¹⁷, eta errealtate eta fenomeno bereizi eta «transhistoriko» gisa ulertzen zituen teorialaria (Poulantzas, 1987, 109. or.). Izan ere pentsalari greziarrantzat «badago *zerbait* nazio terminoarekin izendatzen dena, hots, harreman sozialen birproduktzio-unitate jakin bat, kapitalismoaren aurretikoa dena» (*Idem*). Hain justu Euskal Herria onartzeko

17. Poulantzasek baieztatu zuen nazioak oro har ez zirela nazio modernoarekin, alegia nazio-estatu kapitalistarekin, identifikatzen halabeharrez (Poulantzas, 1987, 109. or.). Nazio batzuek ez dutelako modernitate pasatzeko aukerarik izan, ez baitute Estatua izateko ahalmen politikoaz gozatu.

aproposa zena Europako herri zaharrenetako bat dela onartuz gero. Baina hori soilik ez, eta herrien erabakitze-eskubidearen alde irizpide leninistaren defentsan aritutako intelektuala ere aurki zezaketen euskal militanteek. Izan ere, greziarrak argi zuen nazioaren eta Estatuaren arteko banaketa edo disoziazioa (*Ibidem*, 110. or.). Austromarxisten hausnarketei helduz konpartitzen zuen Estatu nazional jakin baten markoan hainbat nazio egon zitezkeela, eta are gehiago, Euskal Herriako interesgarria izan zitekeena, testuinguru kapitalistan Estatu propioa bereganatu ez duten nazioak ere badaudela¹⁸; eta hori lortu ez dutenak nazio elbarrituak ez direla defendatu ere (*Idem*). Gauzak horrela, nazioek autodeterminazio-eskubidea zutela argudiatzearekin batera gogor kritikatu zuen printzipio leninistaren erabilera instrumentalista —estalinismoak eta Sobietar Batasunaren interes geopolitikoak elikatzeke zabaldutakoa—, «nazioarteko iraultza proletarioaren interesen» arabera irizpide arbitrarioaren menpe zehazten baitzuten haren komenigarritasuna (*Ibidem*, 142. or.).

Horrekin batera, euskal militanteek nazio modernoaren azalpen materialista bat aurki zezaketen Poulantzasen orrialdeetan. Izan ere, a) ekoizpenaren eremuari erreparatu zion nazio modernoaren nolakotasuna azaltzeko batetik. Hau da, zirkulazioaren eta merkatuaren beharrianen inguruko azalpenetatik ihes egin, eta ekoizpen-harremanen, Estatuaren eta nazioaren arteko lotura material eta historikoari erreparatzeko marko teorikoa eskaini zuen; nazioa delako Estatu kapitalista gizartean ainguratzeko modua eta bidea. Hala, ekoizpen-modu historikoek dituzten espazio- eta denbora-matrize ezberdinei erreparatuz, nazioaren osaketa historikoak ulertzeko ahalegina eskaini zuen. Modu horretan, Espainiako eta Frantziako Estatu kapitalisten sorrera eta bilakaerak ekarritako nazio bakar eta baztertzailaren aldeko joerak eta apustuak¹⁹ interpretatzeko eta Euskal Herriarekiko zapalketak ulertzeko —matrize espazial eta tenporalaren marko propioa garatzeko ukapen gisa aditu— aukerak luzatu zituen. Eta era berean, b) nazio modernoak klaseen arteko borrokaren mendeko errealtateak direla ere azpimarratu zuen ikuspegi materialista horri jarraituz (Poulantzas, 1987, 140. or.). Hots, tentazio idealisten aurka, erakutsi zuen azio modernoak ez direla burgesiaren emaitza deliberatibo eta arrazional bat. Nazio modernoak, Estatu kapitalista bezala, klaseen arteko borrokaren prozesu erlazional baten emaitza direlako hain zuzen. Alabaina, egiari zor, ñabartu beharrekoa litzateke Estatu eta formazio sozial batekin loturiko nazioak soilik izan zituela aztergai, baina baldintza horietan ez zeuden nazio zapalduentzat tesi baliagarria ere izan zitekeela pentsa zezaketen euskal militanteek. Izan ere, Euskal Herria mugimenduan, disputan, erlazionalki eta klaseen arteko talken arabera ulertzeko gakoak eskaini zitzaizkeen. Noiz eta goian esan bezala, 70eko hamarkadan Euskal Herriaren osaketa klasistarekiko ardurak, klase nazionalak gorabehera, hamarnaka lan sortu zituenean.

18. Are gehiago, nazioek Estatu bilakatzeko joera historikoa agertzen dutela zioen (Poulantzas, 1987, 111. or.). Hain zuzen 1962ko ETarentat, Euskal Herriaren historiak erakutsi zezakeena Nafarroako Erresumaren aldeko erresistentzietatik hasita. Gogora dezagun ETak hasieran historiari heldu ziola abertzaletasuna oinarritu nahian eta Euskal Herriaren zapalketa eta joera askatzaile horren barruan egondako saiakerak aztertu zituen hainbat koadernotan (Odriozola, 2016, 166. or.).

19. Estatu kapitalistek nazio bakar bat soilik bereganatzeko joera historikoa dute (Poulantzas, 1987, 111. or.).

Poulantzasek nazioak Estatu baten ainguratzean jasaten dituen aldaketa kualitatiboak azaltzen zituela aurkitu ahal izan zuten borrokalari independentistek. Izan ere, ahalmen monopolikoak direla eta, Estatuak lurralde nazionala zehazteko batetik, eta historia, tradizio eta etorkizun nazionalak marrazteko bestetik ahalmen eskusiboa lukeela erakutsi ahalko zien teorikoki. Zentzu horretan, nazio-estatuak nazio zapalduen hori bera ukatzen diela ulertzeko aukera eskaini, eta aldi berean, askapen nazionalako borroka interpretatzeko gakoak eman ere. Azken batean Euskal Herriaren eta nazio zapalduen askapen-borroka Estatu propio baten aldeko borroka diren heinean, nazio-estatuak inplikatzeko duten modernitateko jauziaren aldeko borroka gisa uler zezaketelako orduko euskal militanteek euren jarduna. Euskal Herria modernitate propioaren aldeko borrokan legokeela arrazoiaketa poulantziarren helduz. Azken batean «aro modernoan autonomia nazionala eta Estatu propioaren aldeko borroka, denbora ulertzeko modu kapitalistan, historia propioaren aldeko aldarrikapenak dira» (*Ibidem*, 135. or.) pentsalari greziarrentzat. Eta kontrara, Estatu propioa ez izateak «beste tradizio, historia eta memorien akabatzea ere esan nahi baitu» (*Idem*). Zentzu horretan, Euskal Herriak, bi nazio-estaturen menpe, ez lukeela bere historiaren eta denboraren jabe izateko eskubiderik eta ahalmenik, eta bi estatu horien monopolioek inposatutako memoria, tradizio, egunerokotasun eta etorkizunetan azpiraturik legokeela ulertzeko parada eman ziezaikeen euskal militanteei Poulantzasek. Baita ere, lurraldetasunari dagokionez, Euskal Herriak bere lurraldearekiko monopolio-ahalmena ukatua lukeela teorikoki ulertzeko aukera.

Azpimarratzekoa da, halaber, eskala nazionalaren parametroetatik aritu zela Poulantzasek. Nazioa zelako haren ustez Estatua eta gizartea lotzen dituen aingura. Batetik Estatu kapitalistak nazioari esker funtzionatzen duelako (*Ibidem*, 118. or.), eta ekoizpen-modu kapitalistaren esentzia ez-nazionalak fantasia besterik ez direlako haren aburuz. «Ez dago marko nazionaletan agertzen den esentzia supranazionalik» (*Ibidem*, 141. or.). Ekoizpen-modu kapitalista, Estatua eta nazio modernoaren prozesu beraren aurpegi ezberdinak besterik ez lirateke beraz. Nazionalki pentsatu zituen Estatua eta kapitalismoa. Eta soziologo greziarrak estatudun nazio dominanteak erreferentziatzat bazituen ere, errealitate nazionalarekiko sentsibilitatea interesgarri jo zezaketen euskal protesta-ziklorako euskal militanteek. Baita ere, azkenik, bereziki garatu ez arren, sozialismoaren trantsizio nazionalaren ezinbestekotasunaz aritu izana: «Sozialismoaren trantsizio nazionala besterik ez dago» (*Idem*). Alegia, sozialismoaren ainguratze nazionala ohararazi zuelako sozialismoaren eredu bakarraren inportazioaren aurka. Militante antiestalinista gisa, eredu sobietarrak eta «demokrazia herritarrek» itotako bide propioek eragina izan baitzuten haren pentsamenduan, Hungarian eta Txekoslovakian gertatutakoa kasu. Baina Txileko sozialismo demokratikoaren esperientziak positiboki inspiraturik, aniztasunaren defentsan aritu zen honetan ere. Sozialismoaren eredu unibertsalak ukatu eta ustezko eredu unibertsal baten lurreratze nazional eta partikularrak baztertuz, sozialismoaren bide eta eredu nazionalki askotarikoen alde egin zuen tokian tokiko abiapuntu eta prozesuen alde (*Idem*).

6. Ondorioak

Nicos Poulantzas soziologo greziarra Estatuaren teoriaren eremuan ospea eta aitortza jasotzen hasi zen unearekin batera, 1968tik aurrera, Euskal Herriaren berri izan zuela ikusi dugu. Vincennes unibertsitate esperimentalean, inguruan izan zituen ikasle euskaldunek, Euskal Herriaren klase sozialen gainean egin zizkioten lanen bitartez, informazioren bat helarazi zioten Pirinioetako herri zaharrari buruz. Zentzu horretan, interesgarria da Jokin Apalategiren doktoretza-tesia aipatzea, tesiaren defentsaren epaimahaia osatu baitzuen Poulantzasek. Hala ere, Euskal Herria munduan kokatu zuen Burgosko Prozesuak piztu zuen haren arreta aktiboki eta auzipetuen aldeko manifestu bat sinatzera ere heldu zen. Ez dakigu Sartrek Gisèle Halimirentzat idatzitako hitzaurre famatuak bitartekaritzaren bat egin ote zuen euskal militanteekiko izan zuen hurbilpenean. Alabaina, 70eko hamarkadatik aurrera Poulantzasek noizbehinka Euskal Herria edo euskal askapen-borroka aipatu zituela ikusi dugu; zela kapitalismo internazionalaren joeren aurrean kokatzeko, zela haren asmo edo pretentsioak aipatzeko.

Era berean, Euskal Herriak Poulantzasek testuen eta teorizazioen berri izan zuen 60ko eta 70eko hamarkadetan, euskal protesta-zikloa abiatuak, Euskal Udaberria gertatzen ari zela. Euskal Herria berpizte nazional, kultural eta politikoa bete-betean zegoelarik, Poulantzas ezagutu eta haren ekarpen jakin batzuk esku artean izan zituzten askapen nazionalaren maila intelektualetan. Batez ere, 1968ko Maiatzaren bueltan Parisera joan ziren euskaldunen bitartez. Haren ikasleak izanda, neurri handiago edo txikiago batean, hurrenez hurren ezagutu eta haren teorizazio eta ekarpenen berri izan baitzuten. Handik gutxira Euskal Herrira inportatu zuten. Gauzak horrela, harrera handien izan zuten Poulantzasek testuak klaseen osaketaz eta konposizioaz aritutakoak izan ziren. Azken finean, marxismoa garaiko asmo askatzaile eta iraultzaileen hizkera zientifikoa zekarren markoa izanik, eta Euskal Herriaren askapen-borroka betaurreko horietatik aztertze asko egiteko zegoenez, Poulantzas baliagarria izan zen Euskal Herria nazionalki eta sozialki zapaltzen zuten klaseak identifikatzeko eta askapen-borroka sostengatu zezaketen klase sozialak deskribatzeko. *Bloke dominatzailea, klase-frakzioak, burgesia txiki berria, klase-aliantzak, burgesia nazionala* eta gisa horretako terminoak erabilgarriak izan ziren. Horrela ageri da 70eko hamarkadan euskal askapen-borrokaren barneko hiru ildoetan, *milian, polimilian* eta *autonomoan*, erreferentziazko intelektualak izandakoen artean: Jokin Apalategi, Emilio Lopez Adan eta Mario Onaindia hurrenez hurren.

Aldiz, Poulantzasek garatutako nazio-auziari buruzko teorizazio eta ekarpen esplizitu eta garatuenak, 1978an *L'état, le pouvoir, le socialisme* testuan azaldutakoak, ez dira bereziki aintzat hartu euskal askapen-borrokaren hamarkada horietan. Akaso Poulantzasek nazio modernoaren teoriari soilik estatudun nazioen errealitatetik ekin ziolako, edo beharbada eurozentrikoegia izanagatik, edota euskal militanteen egarri poulantziarra klase sozialen gaineko ulerkeran zegoelako, oharkabean pasa ziren nazio-auziaz garatutako 45 orrialde. Mugak muga, eta akatsak akats, aintzat hartzekoak izan zitezkeenak askapen nazionalerako mugimendu batentzat, bai kritikarako edota bai bereganatzeko.

Horregatik diogu, beraz, batez ere nazio-auziari dagokionez, Euskal Herriaren eta Poulantzasen arteko elkarrizketa borobildu gabe geratu zela. Noiz eta batak besteari ekarpen teorikoak egiteko gako interesgarriak aurki ziezazkiokeenean 70eko hamarkadaren amaiera aldera. Izan ere, Euskal Herriak pentsalari greziarrari teoriarako eredu eta adibide bat eskain ziezaiokeen, hala nola Euskal Herrian, bi nazio-estatutan zatiturik egon arren, klaseen arteko borrokak erritmo eta eduki nazionalak hartzen zituela erakutsi; Europak osatzen zuen erdigune inperialistan, nazio ukatu baten askapeneko testuinguru batean, formazio sozial eta nazional propiorik gabe ere klaseen arteko borrokaren marko autonomo bat osatzen zela eta klase nazional bereziak osatzen zirela demostratu; edo greziarrak hobesten zituen motako aliantza interklasistak askapen nazionaleko terminoetatik egiten zirela ikusarazi; edota abertzaletasunaren izaera iraultzailea eta sozialista izan zitekeela nazio ukatu baten baitatik egiaztatu.

Era berean, eta kontrako norabidean, Poulantzasek euskal askapen-mugimen-duaren hausnarketa teorikoetan nazio-auziaz ere bazuen zer eskaini. Ez mugimendua poulantziarra egin zedin, bai, ordean, analisi eta deliberazioetan, euskal nazioaren determinazio teorikoan, ñabardurak hornitzera begira lagungarri izan zitekeelakoan. Zentzu horretan, besteak beste, Poulantzasek nazioen errealtate espezifikoaren aitortza egin eta autodeterminazio-eskubidearen baldintza gabeko defentsa egiteko euskarria eskaini zezakeen lehenik; nazio modernoan ikuspegi materialista bat luzatu bigarrenik; nazioari Estatu batean ainguratzeak dakartzkion nolakotasun espezifikoak azaldu eta nazio-estatuen eta nazio zapalduen arteko posizioen azalpen bat eman hirugarrenik; eskala nazionalaren garrantzia azpimarratzeko baliabide teorikoak mahaigaineratu —noiz eta kapitalismo finantzarioaren joera transnazionalaren hedapen-fasean— laugarrenik; eta azkenik, sozialismoaren trantsizio nazionalen ezinbestekotasunaz oinarri politologikoak luzatu.

Alta, ez zen posible izan espero zitekeen elkarrizketa. Eta 1979an hartu-emanen sakontzeko aukerak itxi ziren Poulantzasek bere buruaz beste egiteko hautua egin ondoren. Noiz eta biek ala biek, kilometroak kilometro eta motibazioak motibazio, elkarrizketaren ondorioz garapen teoriko propio zapoetsuago bat eta ñabarduretan aberasgarriago bat izateko baldintzak eskaintzen zituztenean. Gauzak horrela, Euskal Herriaren eta Poulantzasen arteko ideia, tesi, nozio, argudiaketa, teorizazio eta balorazioak zuzenean trukatzeko aukerak betiko gauzatu gabe geratu ziren. Are gehiago, Euskal Herriaren eta Poulantzasen arteko elkarrizketa, zeharkakoa eta azalekoa izanda ere, etenda eta borobildu gabe geratu zen betiko. Edonola ere, testu eta eragin poulantziarretatik edaten jarraitu du, gehiago edo gutxiago, euskal askapen-mugimenduak.

7. Erreferentziak

- Apalategi, Jokin (1979). Nicos Poulantzas soziologoa hil zaigu. *Jakin*, (12).
Apalategi, Jokin (2006). *Los vascos, de la nación al Estado*. Astero.
Apalategi, Jokin eta Iztueta, Paulo (2004). Pierre Vilar eta Euskal Herriaren borroka. *Uztaro*, (49), 89-119.
Casanova, Iker (2014). *ETA 1958-2008. Medio siglo de historia*. Txalaparta.

- D., Ch. (1979). Estatu modernoaren Teorizatzaila. *Anaitasuna*, (390), 34-36.
- Iztueta, Paulo (2015). *Zabal-en isuria (1973-1976). Ezker abertzalea paradigma berrien aurrean*. Utriusque Vasconiae.
- Iztueta, Paulo (2025eko urtarrila-otsaila). Paulo Iztueta Armendariz: «Euskal pentsamendua sortzeak kolektibo handi bat eskatzen du». *Jakin*, (266).
- La Calle (2024). Nicos Poulantzas: Un pensador para Europa. In Jorge Orovitz, Alberto Rosé, Melisa Demetrio eta Manuel Gorini (argtz.), *Nicos Poulantzas: escritos de teoría y política* (197-202. or.). Editorial Prometeo.
- Le Monde (1970eko abenduak 21). Un message d'intellectuels grecs. *Le Monde*. https://www.lemonde.fr/archives/article/1970/12/21/un-message-d-intellectuels-grecs_2642674_1819218.html (Eskuratzeguna: 2025-02-25).
- Lopez Adan, Emilio (1979). *Nacionalismo vasco y clases sociales*. Txertoa.
- Lorenzo Espinosa, José María (2018). *Txabi Etxebarrieta. Armado de palabra y obra*. Txalaparta.
- Odriozola, Onintza (2016). *Erakunde bat baino gehiago: ETA herri mugimendu gisa (1958-1968)* [Doktore-tesia]. Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Olariaga, Andoni (2020). *Euskal matxinada. Genealogia eta egungo eztabaidak*. Txalaparta.
- Onaindia, Mario (1979). *La lucha de clases en Euskadi 1939-1980*. Hordago.
- Onaindia, Mario (2004). *El aventurero cuerdo. Memorias (1977-1981)*. Espasa.
- Poulantzas, Nicos (1976). *Las crisis de las dictaduras. Portugal, Grecia, España*. Siglo XXI.
- Poulantzas, Nicos (1977a). *Las clases sociales en el capitalismo actual*. Siglo XXI.
- Poulantzas, Nicos (1977b). *La crisis del Estado*. Fontanella.
- Poulantzas, Nicos (1987). *Estado, Poder y socialismo*. Siglo XXI.
- Sader, Emir (2020ko irailak 13). Sader: «El diálogo entre Poulantzas y América Latina quedó trunco». *Jacobino Latinoamérica*. <https://jacobinlat.com/2021/05/sader-el-dialogo-entre-poulantzas-y-america-latina-queda-trunco/>
- Salaburu, Pello (1979). Nicos Poulantzas hil da. *Anaitasuna*, (390), 32-34.
- Zubiaga, Mario (2014). El ciclo de protesta en Euskal Herria: hegemonía y radicalización democrática. In Ricard Vilaregut, Daniel Gómez, Pedro Ibarra eta Mario Zubiaga (argtz.), *La rebelión vasca. Una historia de l'Esquerra abertzale* (2-35. or.). Icaria/Pol-len Edicions.

